

Ipar Euskal Herria, berrikuntza bidetan

Ipar Euskal Herria: *bigarren aldiz dator JAKIN gai berarekin. Ipar Euskal Herria zeramakien titulutzat 1969an JAKINek atera zuen zenbaki monografikoak. Oraingoan, juxtu hamar urtetara, gai bera, gogo bera, baina ahots berri zenbait.*

1969ko zenbaki hartan parte hartu zutenak, hauek izan ziren: Joan Mari Torrealday, Telesforo Monzon Olaso, Piarres Larzabal, Janbattitt Dirassar, Piarres Xarritton, Daniel Landart, Jean Haritschelhar, Ramuntxo Kanblong, Jean-Louis Davant, Dominique Peillen. Idazle arrunt ezagunak. Horietako batzu oraingo honetan ere ari zaizkigu, hala nola, P. Xarritton, R. Kanblong, J.-L. Davant. Gehienak, ordea, idazle berriak dira, berriak eta gazteak: Jean Suhubiette, Agustin Errotabehere, Lucien Etxezaharreta, Maite Idirin, D. Heguy, Marta Ithurbide, Gexan Lantziri, Jose Basurko, Janbattitt Goienetxe. Idazle berrien plaza-ratze honek berak ez al du Iparraldearen berrikuntza adierazten?

1969ko Ipar Euskal Herria agortu da. Ipar Euskal Herri berria argitara ematen dugu orain. Etapa berri bat.

Bidasoatik gora Frantzia, eta haren behe aldetik Espainia: hala da gehienentzat. Abertzaleontzat, aldiz, «hemen dela Espainia, han dela Frantzia, mugaren bi aldeetan da Euskal Herria», Labegeriren kanta hark zioenez. Batasun honen kontzientziak, hala ere, ez du abertzale guztiontzat presentzia eta indar berdinek.

Zenbait abertzalerentzat, oraindik ere, Bidasoatik gora-

koak «frantsesak» dira (gehienez ere, «euskaldun frantsek»), eta mugatik beherakoak «espainolak» (edo «euskaldun espainolak», kasurik onenean). Hiztegia lekuko: mintzamolde honek herri bakar baten kontzientziarik eza salatzen du.

Zorionez, bada besterik ere. Euskaldungoaren kontzientziak urrats handirik eman du azken 20 urte hauetan. Euskal Herriaren integrapenaren ulertzapen berri eta biziago bat erne da, eta indartuz doa. «Zazpiak bat» hura seriozki hartu nahi izan du abertzaletasun berriak. Eta, noski, kontzientzia honek batasun-bideak eragin nahi ditu: politikan, ekonomian, kulturean, irakaskintzan, kantagintzan, eremu guztietan. Mugaren gainetik edo azpitik harreman estuagoak eta iraunkoragoak sortaraztera jo behar da. Lanak emango ditu mugaren gainetiko batasun honek. Madriden eta Pariseren interesen aurka bait doa. Estatuaren arteko kolaborazioak Euskal Herria kurrikatuz eta bi alderdien elgarretaratzeari trabak ezarri jarraituko du.

JAKINek, Ipar Euskal Herriari zerbaki bat eskaintzean, kontzientzia hori sendotu eta zabaldu nahi du, baina ororen gainetik Euskal Herriaren alderdi hori ezagutzera eman. Zeren eta gure ustetan, euskaldungoaren kontzientziari indarririk adina, edo gehiago, datuak falta zaizkio. Datu horiek bildu eta agertzera dator JAKIN. Paregabeko zerbitzua iruditzen zaigu informazio-bilketa sistematizatu hau, nahi genukeen euskal herrien integrapen horretarako hartu behar diren bideak erabaki aitzin.

Pariseko Gobernuak Ipar Euskal Herria barnetik hustu nahi du; eta erdiesten ari da: gaztez hustu, eta zaharrez bete; langilez hustu eta atsedenez bete; lantegiz urritu eta «bigarren bizitegi» hornitu. Horrela lortzen du Parisek emeki emeki eta «en douceur», lekuko euskaldun batzuen laguntzaz, Ipar Euskal Herria behin betirako ahultzea, etorkizuna konprometitzearaino. Guk, aldiz, Ipar Euskal Herri indartsu bat behar dugu, Estatuaren kolaborazioaren eta kultura frantsesaren erasoak gaindituko dituen. Iparralde sendo bat komeni zaio Hegoaldeari ere.

Frantziako Estatuarentzat ez dago ofizialki Euskal Herri-rik, badakigu. Beste askorentzat ere ez. Hegoaldeko euskaldun askorentzat, «ofizialki» bai, badago Ipar Euskal Herri bat, baina egiazki ez. Noiz gogoratzen gara Iparraldeaz? Etxaberen, Argalaren edo Peixotoren atentatuak ger-

tatzen, edo ETako adiskide edo etxekoren bat bisitatzera koan. Babesleku bihurtu dugu Iparraldea, Hego aldeko burrukarien babesleku. Zentzu horretan, egia esan, ez du zerbitzu makala egin, bai 1936ko gerratean eta bai azken 20 urteotako burrukan. Baina nekez konforma gaitezke honekin. Ez dugu uste Bidasoako mugaren bi alderdien elkar osatzailetasuna, maila honetan bakarrik uler daitekeenik, ulertu behar denik. Ipar Euskal Herriak bere nortasuna du, bere bokazioa du, bere eginkizun berezia eduki behar du Euskal Herri osoko herri eta eskualdeen konposaketan. Bertako indarren eginkizuna, eta guztion lana, izango da gaurko egoeratik herria ateratzea eta etorkizuna pentsatzea eta moldatzea. Iparraldeko abertzailetasuna, emeki emeki bada ere, indartuz doala ikusteak esperantza onik ematen digu.

Iragan denboretan (eta orain ere) Iparrak eta Hegoak bi historia desberdin osatu badute ere, etorkizunean elkartuagorik jokatzen ikusi nahi genituzke. Eta horretarako, bi alderdien arteko harremanak, erlazioak, loturak, ugal-tzen, estutzen, sakontzen, egituratzen lehiatu beharra dago. Ofizialki eta ez. Politikan, ekonomian, eta kulturean. Azken urteotan ere gutiegi egin da. Saio batzu soilki politikaren eta ekonomiaren arloan. Kulturean bakarrik lortu da mugaren gainetik operatzea, hala nola, euskararen batasunaren arazoan, UEUn (Udako Euskal Unibertsitatean), EIEEn (Euskal Idazleen Elkarteon), bertsolarien lehiaketetan, Euskaltzaindiaren Batzarretan, Kanta-saioetan, Alfabetatzean, etab. Lan elkartu honen alde jokatu da beti JAKIN. Hona frogatzen du gehiago, Ipar Euskal Herriari buruzko monografia honetan.